



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## **ALKATE DEKRETUA, ANDRE MARIA ZURIAREN JAIETAN, ZELEDONEN JAITSIERAN ETA IGOERAN, BEIRAZKO ELEMENTUAK ERABILTZEA DEBEKATZEKO**

Zeledonen jaitsieran eta igoeran jendetza handia biltzen da Andre Maria Zuriaren plazan eta inguruetan. Ospakizunean gehien bat beirazko botilak, edalontziak eta beste elementu batzuk erabiltzen dituzte, eta hautsiz gero zauri larriak eragiten dizkiete herritar ugari.

Gainera, hondakin-kopuru izugarria sortzen da, zeina berehala kendu behar baita bertatik, kalte handiagorik sor ez dadin; Udalak arduratu behar du hondakinak kudeatzeaz.

Horrenbestez, alkatea naizen aldetik beharrezkotzat jotzen dut neurri egokiak hartzea Andre Maria Zuriaren jaietan, Zeledonen jaitsieran eta igoeran, pertsonen, animalien eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.

Ondorioz, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legearen 41. artikulua, Garbiketari eta Hondakinen Bilketa eta Garraioari buruzko Udal Ordenantza, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 124-4 a), g) eta ñ) artikulua ikusirik, hau

### ***XEDATU DUT:***

Lehena.- Debekatzea Andre Maria Zuriaren jaietan Zeledonen jaitsiera eta igoera ospatzeko beirazko elementu oro erabiltzea, tartean dauden pertsonen, animalien eta ondasunen segurtasuna bermatzearen.

Bigarrena.- Debekua Andre Maria Zuriaren plazara eta inguruetara mugatuko da: Plaza Berria, Loma Jeneralaren plaza, Posta kaleko alboko zatia, Posta kalea, Prado kalea, Mateo Moraza kalea, Arkupeak eta Hedegile, Zapatari, Errementari eta Diputazio kaleen sarrerak.

Hirugarrena.- Herritarren Segurtasunaren Sailari dekretu honen berri ematea, betetzeko behar diren neurriak har ditzaten, indarrean dagoen araudiaren babespean.



Laugarrena.- Debekua ez betetzeak dossier zigortzailea abiaraztea ekar lezake, Garbiketari eta Hondakinen Bilketa eta Garraioari buruzko Udal Ordenantza ez betetzeagatik.

Bosgarrena.- Dekretu hau dataren biharamunean jarriko da indarrean, udalaren webgunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Hala agintzen eta izenpetzen du alkate lehendakariak, Vitoria-Gasteizen, 2017ko maiatzaren 12an.

Alkate lehendakaria,  
Gorka Urtaran Agirre.